« Je me souviens… Oroitzen naiz » Bilbon

Joan den irailean, Biarritzen eta Donostian bildu arrakastaren ondotik, **Jean Nesprias**-ek, **Philippe Oyhamburu**-k eta **Koldo Zabala**-k Mizel Théret-en sorkuntza berriz aurkeztuko digute :

« Je me souviens… Oroitzen naiz »
Martxoaren 3a, larunbata, Bilboko BBK aretoan
Dantzaldia jaialdiaren 8. edizioaren karietara

Segundo de Olaeta koreografo bizkaitar handiaren ikasleak izan diren hiru euskal pertsonalitateak, **Mizel Théret**-en zuzendaritzapean berriz elkartuko dira beraz, denen atseginerako !

Hiruek eskaini diote bizitza dantzari (eta hortaz, euskal kulturari), eta buru eta bihotz ekin diote, oraindik ere haien barruan bizirik dirauen "su sakratu" batek bultzatuta. Obra intimista hau, geldoa eta samurtasunez betea, keinu minimalistetan oinarritzen da.
Hiru dantzariak eszenatokian zehar ibiliko dira, aurrera egingo dute, eseriko dira, etzan egingo dira, altxako dira, hainbat dantza pausu emango dituzte, arnasa hartuko dute, begiradak luzatuko dituzte, haiei buruz hitz egingo digute, geldi-geldi geratuko dira, bata bestearen babesa bilatuko dute...
Bestetik, sorkuntza honen gai nagusia dantzariaren gorputzaren eta gorputz-memoriaren zahartzea izango da.

Euskal Herriko hiru pertsonalitate handi eramaten duten ikusgarria da. Beren gorputzen egian, indarrezko eta itxaropenezko mezu bat emanen digute.

Mugaz-gaineko BALLET T proiektuaren karietara, **Malandain Ballet Biarritz** **Euskal kultur erakundea**rekin elkartzen da publikoak mugetatik at mugiarazteko xedearekin.
25 euroren truke (autobusa + ikusgarria), zatozte ikusgarri honen ikustera edo berriz ikustera !

Abiatzea martxoaren 3an, 10:00etan, Biarritzeko Gare du Midi aretoaren aitzinean eta itzultzea ikusgarriaren ondotik.

Izen-emateak : Malandain Ballet Biarritz (Carine Laborde) : 05.59.24.87.65 / c.laborde@malandainballet.com